

GAZTAINERRE

Egun hau Ermua, Eibar eta Soraluzen arimen egunetik bigarren astelehenean ospatzen da.

Antzina, familiek etxean ospatzen zuten, sarri, familia bat baino gehiago etxe berean elkartzuz. Gaur egun ordea, lagun arteko afari-meriendak eginez ospatzen da. Afari merienda hauek herriko tabernaren batean edo inguruko auzoetako bentaren batean egiten dira. Afari hau goiz xamar hasten da eta lehenbiziko eta plater nagusizat barraskiloak saltsan eta txorizo errea izaten dira. Ondoren, gaztaina erreak dastatzean datza ohitura. Eibarren, AEKak Orbea pilotalekuan antolatzen duen "Afari herrikoa" ere usuario bilakatzen ari da gaur-egun. Azpimarragarria da baita ere, orain arte gizonetzkoek bakarrik ospatzen zuten jaia zela.

Gaztainerre zergatik? Gaur gure basoetan gaztaina gutxi bada ere, aspaldi batean ugari zen arbola mota hau eta urte garai honetan jakirik ugariena eta merkeena zuelako batik bat.

Uste dugu antzina orain baino hedatuagoa zegoela *Gaztainerre* egunean afari-merienda egitea. Gaztaina erreak jatearen ohitura, hileta ondorengo "Ondra-janean" aurki daiteke. Horregatik ospatzen da Dominu Santu eta Arimen egunaren ondoren.

Ermua, Eibar eta Soraluzeko nekazarien artean, eta baita Durangaldekoen artean ere, oraindik bizirik irauten du hileta ondorengo "Ondra-janak". Ohitura hau kontuan harturik argi dago *Gaztainerre* egunaren jatorria: hileta bakoitzaren "Ondra-jana"ren arabera, Dominu Santu eta Arimen egunak aintzat harturik, urtean behingo anaitasunezko otordua egitea hildako guztien oroimenez.



ERREKIÑA

ERRE ERREKIN ERREKINA
NORK NAHI DITU SEI GAZTAINA
ERRE ERREKIN ERREKINA
MERKE MERKE ALAJAINA
GORDINAK LIRINAK
LAISTER SAN MARTIN
PIN-PAN PIN-PAN DANBOLIÑA



AHO JOLASA

IREKI ESKUA

LASAITU BEHATZAK

LUZATU BESOA

ETA HAR EZAZU

GAZTAIN GOZOA

IREKI BEGIAK

LASITU OKOTZA

LUZATU ESPAINAK

ETA SAR EZAZU

AHOAN GAZTAINA